



ESKOLA JARDUERAK EGITEN ARI DIREN BITARTEAN ADIN TXIKIKO IKASLEAK GRABATZEARI BURUZ EUSKO JAURLARITZAKO XXXXX SAILAK EGINDAKO KONTSULTAREN GAINEAN EGINDAKO IRIZPENA.

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2010eko maiatzaren 19an Eusko Jaurlaritzako Xxxxx Sailaren idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan, goian adierazitako gaiari buruz.

BIGARRENA: Kontsulta-idazkiak honakoa zioen:

“Xxxxx zentroak ikastetxe publiko eta pribatuetako lehen hezkuntzako eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako zentroi ingurugiro hezkuntzaren baitako proiektuetan parte hartzeko aukera eskaintzen die. Egonaldiak borondatezkoak dira eta aste betekoak dira, astelehenetik ostiralera.

Zentro hau Eusko Jaurlaritzako Xxxxx Sailaren eta Xxxxx erakundearen obra sozialaren arteko lankidetzaren itun bati esker sortu zen. Zentroaren eskaintza dinamizatzen eta garatzen duten irakasleak Saileko irakasleak dira.

Zentora joan eta goiko jarduera horiek gauzatu aurretik, zentroko zuzendaritzak datu pertsonalei buruzko fitxa bat betetzeko eskatzen die ikasleen gurasoei eta/edo tutore legalei (fitxa I. Eranskin gisa atxikitzen da). Familiek baimentzen dituzten datuen artean ez da agertzen ikasleen irudia erabiltzeari buruzko ezer.

Xxxxx Ikuskaritzak jakin badaki, Xxxxx erakundearen ekimenez eta erakunde horrek berak kudeatuta, grabazioak egin zaizkiela zentroak eskaintzen dituen ingurugiro arloko proiektuko jarduera batzuetan parte hartu duten ikasle talde batzuei. Seguruenik, grabazioak obra sozialaren barruan erabiltzeko izango dira.

ESKATZEN DU

Kontuan izanda ikasleak adin txikikoak direla eta gurasoek eta/edo tutore legalek ez dutela berriazko baimenik eman umeen irudiak grabatzeko, Xxxxx Ikuskaritzak ondo gaiak argitzeko eskatzen du:

- a) Ea datuen fitxa araudiaren arabera den, adin txikikoak grabatzeko eta haien irudia erabiltzeko.*
- b) Fitxa zuzendu beharra badago, ea zein diren eskatu beharreko*



betekizunak/baimenak, legearen arabera.

c) *Ea zentroko zuzendaritzak zein erantzukizun har dezakeen bere gain. Zentroa Xxxxx Sailaren menpekoa da.*

Xxxxx Sailekoa ez den erakunde batek (Xxxxx) zein baldintzetan erabil ditzakeen ikasleen irudiak.

Kontsulta-idazkiarekin batera, Xxxxx zentroan onartua izateko eskabidearen kopia bat ere helarazi digute.

HIRUGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Erakunde kontsulta-egileak hainbat alderdiri buruz galdetu du. Xxxxx Zentroan egiten diren jardueretan adin txikikoen irudiak grabatzen dira, eta galdera guztiak horrekin lotuta daude.

Gaiaren muinera jo aurretik, komeni da irudien tratamenduaren gaineko zenbait ohar egitea.

Irudia datu pertsonala dela gogorarazi behar da, eta hala dela xedatzen du DBLOren 3. artikulua, pertsona fisiko identifikatuei eta identifikagarriei buruzko bestelako edozein informazio bezala. Horregatik, irudiekin egiten diren tratamenduek (irudia jaso, bildu, laga eta abar) datu-babesaren esparruko oinarrizko printzipioak bete behar dituzte.

Konstituzio Auzitegiren 2000ko azaroaren 30eko 29/2000 Epaia mugari garrantzitsua izan zen datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubidea eratzeko eginkizunerako. Konstituzio Auzitegiak honakoa dio epai horretan: "Konstituzioaren 18.1 artikulua aitortzen duen intimitaterako oinarrizko eskubidearen eginkizun garrantzitsuena da babestea pertsonen bizitza pertsonala eta familia-bizitza hirugarrenek bertan egin ditzaketan mutur sartzeetatik, batez ere pertsonak ez badute nahi halakorik gertatzerik (epai guztien ordez, honakoa aipatuko dugu: uztailaren 22ko 144/1999 Epaia, 8. lege-oinarria). Datu pertsonalak babesteko eskubidearen xedea, ordea, beste bat da, hau da, eskubide horrek lortu nahi duena



da bermatzea pertsonak haien datu pertsonalak kontrolatzen dituztela, hau da, kontrolatzen dutela nola erabiliko diren eta zertarako, ukituaren duintasuna eta eskubidea kaltetu dezakeen ez-legezko datu-trafikoak ekidinez. Azken finean, intimitaterako eskubideak balio du lortzeko hirugarrenek ez dezaten jakin pertsonen datuak, eta hala xedatu du Konstituzio Auzitegiak (uztailaren 15eko 134/1999 Epaia, 5. lege-oinarria; 144/1999 Epaia, 8. lege-oinarria; apirilaren 10eko 98/2000 Epaia, 5. lege-oinarria eta maiatzaren 10eko 115/2000 Epaia, 4. lege-oinarria). Beraz, aukera ematen die pertsonari nahi ez dute publizitate babesteko bizitza pribatua. Datuak babesteko eskubideak datuak nola erabili erabakitzeko ahalmena ematen die pertsonari. Eta horregatik, botere publikoari debekatu egiten zaie pertsonen datuak informazio-iturri gisa erabiltzea behar bezalako bermerik ez badago. Era berean, botere publikoari bete behar bat agintzen die eta da neurriak hartu behar dituztela informazio hori zilegi ez den moduren batean atzitu eta erabiltzeagatik erator daitezkeen arriskuak prebenitzeko. Norbere datuak nola erabili erabakitzeko boterea, baina, alferrikakoa izango da ukituak ez badaki zein datu dituzten hirugarrenek, nork dituen datu horiek eta zertarako dituen" (292/2000 KAE, 6. lege-oinarria).

Era berean, 292/2000 epaiak honakoa dio: "Datu pertsonalak babesteko eskubidea izateak norberaren datu pertsonalen gaineko boterea izatea eta datu horien gainean erabakiak hartzeko gaitasuna izatea dakar, eta gaitasun horrek ahalmena ematen dio pertsonari honakoak erabakitzeko: ea datu horietatik zeintzuk eman nahi dizkion hirugarren bati, dela Estatu dela partikular bat, eta ea hirugarren horrek datu horietatik zeintzuk bildu ditzakeen; horrez gain, ahalmena ematen dio jakiteko ea datu pertsonal horiek nork dauzkan eta zertarako, eta bere datu pertsonalak inork edukitzearen edo inork erabiltzearen aurka agertzeko ahalmena ere ematen dio. Norberaren datu pertsonalak kontrolatzeko eta horien gaineko erabakiak hartzeko boterea datu babeserako oinarrizko zuzenbidearen edukiaren zati bat da eta botere hori honako gaitasun hauek gauzatzen dute juridikoki: datu pertsonalak biltzeko, eskuratzeko eta atzitzeko adostasuna adierazteko gaitasunak, geroago datu horiekin egiten diren biltegiatzearen eta tratamenduen gaineko adostasuna adierazteko gaitasunak eta hirugarren batek, dela Estatuak dela partikular batek, datu horiekin egin dezakeen edo ditzakeen erabileraren edo erabileren gaineko adostasuna adierazteko gaitasunak. Eta inork datu pertsonalak jakin ditzan eta datuen tratamendu informatikoa ala tratamendu ez informatikoa egin dezan baimentzeko gaitasunak ezinbestean behar ditu honako osagarriak: batetik, datu pertsonalak non dauden, nork dauzkan eta zertarako erabiltzen dituen uneoro jakiteko gaitasuna eta, bestetik, datuak hirugarrenek edukitzearen eta datu horiek erabiltzearen aurka egiteko gaitasuna.

Aipua luzea bada ere, komenigarria dela uste dugu aztertzen ari garen gaia argitzeko eta azpimarratzeko datu-babesa intimitaterako eskubidearekin lotuta egoteaz gain, baduela zer ikusia ere beste kontzeptu zabalgo batekin: pribatutasunarekin. Datu intimoak ez dira babestuta dauden datu bakarrak, pertsona identifikatu edo identifikagarri bati buruzko informazioa ematen duten datuak ere datu pribatuak dira -kasu honetan ikasleen irudiak dira-- izanik, eta herritarrak horien gaineko kontrola du eta nola erabili erabakitzen du.



Beraz, hori dena ikusita, esan dezakegu kontsulta-idazkiak aipatzen dituen ingurugiro hezkuntzako proiektuetako parte hartzaileek intimitaterako eskubidea dutela, eta horretaz gain, datuen pribatutasunerako eskubidea eta datu horiek nola erabili erabakitzeke eta datuak nork dituen eta zertarako jakiteko eskubidea dutela.

II

Adin txikikoek, haien kabuz ala ordezkarien bidez, euren datu pertsonalen gaineko erabakiak hartzeko eskubidea dutela argi utzi eta gero kontsulta-idazkiari atxikita aurkeztutako agiria aztertzea komeni da, hau da, Xxxxx Zentrora joateko eskabide-orria.

Hona hemen agiriak duen klausula:

“Behean sinatzen duenak, eskabideko umearen aita, ama edo tutorea denez, Onartzen du ikasleak Xxxxx Zentroaren funtzionamendu-erregimen orokorrean parte hartzea. Halaber, zentroan jazo daitekeen edozein gertakari larri gertatuz gero, onartzen du zentroaren konpromisoa aitari, amari edo tutoreari berehala deitzeko telefonoz edo pertsonalki; izan ere, haiekin harremanetan jartzea ezinezkoa denean baino, ez baitu irakaslearekin batera jardungo.

Azkenik, sinatzaileak adierazten du goian adierazitako datu pertsonalak eta mediku datuak egiazkoak direla, eta egonaldia zenbatekoa ordaintzeko konpromisoa hartzen du.

Ikus dezakegunez, inprimakian jasotako datu pertsonalak egiazkoak direla aitortu beharraz aparte, inprimakiak ez du bestelakori aipatzen, hau da, ez du aipatzen fitxategirik dagoenik, helburua zein den, arduraduna zein den edo irudiak jasotzeko adostasunik. Esan dezakegu, beraz, inprimakiak urratzen duen datu-babesaren esparruko printzipioetako bat informaziorako eskubidea dela. Baina, ez klausula ondo ez dagoelako, informaziorik ez dagoelako baizik.

Informaziorako printzipioa abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren (aurrerantzean DBLO) 5. artikuluan jasota dago; eta gure ustez, artikulua horretako lehendabiziko bi artikulua aipatzea merezi du:

"5. artikulua. Informazio-eskubidea datuak biltzean.

1. "1. Datu pertsonalak eskatzen zaizkien interesdunei aurretiaz eta esanbidez informazio zehatza eta zalantzarik gabea eman beharko zaie, ondoko hauen inguruan:

Izaera pertsonaleko datuen gaineko fitxategi edo tratamendua, bai eta datu horiek biltzeko xedea eta informazio horren jasotzaileak ere.

Egingo zaizkien galderei erantzutea nahitaezkoa edo borondatezkoa den.

Datuak lortzearen ondorioak edo datu horiek ez ematearen ondorioak.

Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko edo datuen aurka egiteko eskubideak egikaritzea.



Tratamenduaren arduradunaren identitatea eta helbidea edo, hala denean, arduradun horren ordezkariarenak.

Tratamenduaren arduradunak Europar Batasunean establezimendurik izan ez eta datuak tratatzean Espainiako lurraldean kokatutako bideak erabiltzen dituenean, ordezkari bat izendatu beharko du Espainian, salbu eta bide horiek igarobide-xedeekin erabiltzen direnean, tratamenduaren arduradunaren aurka jar daitezkeen akzioak gorabehera.

2. Datuak biltzeko galdera-sortak edo beste inprimaki batzuk erabiltzen badira, aurreko idatz-zatian aipatutako ohartarazpenak jasoko dira halakoetan, argiro irakurtzeko moduan jaso ere.”

Interesdunari datuak eman aurretik eman behar zaio informazioa, eta betebeharrak erraza da. Ohikoena izaten da datu-bilketako inprimaketan informazio-klausula bat jartzea. Herritarrari eman beharreko informazioa funtsezkoa da bere eskubideak babesteko, honako gaiei buruzkoa delako batez ere: fitxategi bat dagoela esan behar du, fitxategiaren helburua, bilketaren helburua eta fitxategiaren arduraduna nor den eta bere helbidea, datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubidea erabiltzeko.

Jurisprudentziak dio informazio betebeharraren funtsezko edukia direla, eta, beraz, informazio klausulan jaso beharrekoak, honako hauek: fitxategiaren berri ematea eta datu-bilketaren helburua, informazioaren hartzailak zein diren eta tratamenduaren arduraduna nor den eta helbidea. Gure ustez, tratamenduaren arduradunaren helbidea eman behar da ukituak datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal izateko. Edozelan ere, ukituari azaldu egin beharko zaio eskubideak dituela eta horietan balia daitekeela, ezen ez badaki eskubideak dituenik, ezin izango baititu erabili.

Bestalde, esan behar da hori egiteko ardura tratamenduaren edo fitxategiaren arduradunak duela (95/46/CE Zuzentarauaren 10. eta 11. artikulua), berari baitagokio bere obligazioa betetzen duela frogatu beharraren karga. Hala dela xedatzen du abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 18. artikulua 2. idatz-zatiak. Hona hemen:

“Fitxategiaren edo tratamenduaren erantzuleak gorde egin beharko du informatzeko betebeharrari bete dela erakusten duen euskarria”.

Informatzeko betebeharrari oinarritzeko puntu horiek argi utzi eta gero, eta eranskina aztertu ostean, esan dezakegu dokumentuak ez duela informaziorako oinarritzeko printzipioa betetzen, erantzukizuna fitxategiaren arduradunak duelako.

Kontsulta-idazkiak ez du oso argi uzten zein fitxategitan jasoko diren eranskinean jaso beharreko datuak, hau da, ez dago argi Xxxxx Saileko fitxategi batean jasoko diren ala Xxxxx-(r)en fitxategi batean ala bietan. Edozelan ere, datuak jasoko dituen fitxategiaren edo fitxategien arduradunak edo arduradunek nahitaez informatu behar dute herritarra.



III

Informaziorako printzipioa aztertu eta gero, adostasuna aztertu behar dugu.

DBLOren 3. artikularen a) idatz-zatian dago jasota zer diren datu pertsonalak:

“Pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri buruzko edozein informazio”.

DBLO garatzen duen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 errege Dekretuaren 5.1 f) artikulua dio datu pertsonala dela “Identifikatutako edo identifikatzeko moduko pertsona fisikoei buruzko informazioa, dela zenbaki bidezkoa, alfabetikoa, grafikoa, fotografikoa, akustikoa edo beste era batekoa”.

3. artikuluko c) idatz-zatian dago definituta zer den datu-tratamendua:

“Automatizatutako edo automatizatu gabeko eragiketa eta prozedura teknikoak, komunikazio, kontsulta, interkonexio eta transferentzietatik ateratako datuak biltzea, grabatzea, gordetzea, prestatzea, eraldatzea, blokeatzea, ezerezteia eta lagatzea ahalbidetzen dutenak”.

Datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubideak datu-tratamendu bat egotea eskatzen du, datu-tratamendurik ez badago ez dagoelako arazorik. Datu-tratamendua zer den ikusi eta gero, esan behar da ingurugiro hezkuntzako zentroan dauden pertsonen irudiak hartzea datu-tratamendua izango dela, han dauden pertsonak identifikatzen badira edo identifikagarriak badira; eta, beraz, DBLOn jasotako manuak bete beharko dira.

DBLOk 6. artikulua jaso du datu-babesaren printzipiorik garrantzitsuenari: adostasuna. Hona hemen artikuluko 1. Idatz-zatiak dioena:

“Datu pertsonalen tratamenduak interesdunaren adostasun garbia beharko du, legeak besterik xedatu ezear”.

Gogora ekarri behar dugu Konstituzio Auzitegiak 2000ko azaroaren 30eko Epaian jaso zuen datu-babeserako eskubidearen definizioa:

“Datu pertsonalak babesteko eskubidea izateak norberaren datu pertsonalen gaineko boterea izatea eta datu horien gainean erabakiak hartzeko gaitasuna izatea dakar, eta gaitasun horrek ahalmena ematen dio pertsonari honakoak erabakitzeko: ea datu horietatik zeintzuk eman nahi dizkion hirugarren bati, dela Estatu dela partikular bat, eta ea hirugarren horrek datu horietatik zeintzuk bildu ditzakeen; horrez gain, ahalmena ematen dio jakiteko ea datu pertsonal horiek nork dauzkan eta zertarako, eta bere datu pertsonalak inork edukitzearen edo inork erabiltzearen aurka agertzeko ahalmena ere ematen dio. Norberaren datu pertsonalak kontrolatzeko eta horien gaineko erabakiak hartzeko boterea datu babeserako oinarrizko zuzenbidearen edukiaren zati bat da eta botere hori honako gaitasun hauek gauzatzen dute juridikoki: datu pertsonalak biltzeko, eskuratzeko eta atzitzeko adostasuna adierazteko gaitasunak, geroago datu horiekin egiten diren biltegiatzeen eta tratamenduen gaineko adostasuna adierazteko gaitasunak eta hirugarren batek, dela Estatuak dela partikular batek, datu horiekin egin dezakeen edo ditzakeen”.



erabileraren edo erabileren gaineko adostasuna adierazteko gaitasunak (...) (7. lege-oinarriaren 1. paragrafoa)”.

Beraz, eskubidearen funtsezko alderdietako bat datu pertsonalak biltzeko eta erabiltzeko adostasuna adieraztea da.

Edozelan ere, eskubide horrek salbuespenak izan ditzake. Salbuespenak legean jasota daude. Bideoarekin jasotzen diren irudiak direla eta, legeak dio hiruzpalau kasutan trata daitezkeela ukituaren adostasunik gabe. Hona hemen:

Hasteko, Segurtasun Indar eta Kidegoek toki publikoetan kamera edo bideokamerak erabiltzeari buruzko abuztuaren 4ko 4/1997 Lege Organikoak bideoak erabiltzeko baimen-erregimena eratzen du. Hona hemen laugarren artikulua dioena:

“Bideokamerak instalatzeko baimenak emateko, honako irizpideak hartu beharko dira kontuan, beti ere proportzionaltasunaren printzipioaren arabera: instalazio publikoen instalazioak eta sarbideak babestuta daudela ziurtatzea, nazio defentsarako erabili behar diren instalazioak babestea, herritarren segurtasuna urratzen duten arau-haustek frogatzea eta prebenitzea pertsonen eta ondasunen kalterik ez zaiela egiten”.

Adostasunik gabe datuak jasotzea ahalbideratzen duen datu-tratamenduen helburua segurtasun publikoa baino ezin da izan.

Segurtasun Pribatuari buruzko uztailaren 30eko 23/1992 Legeak ere adostasunik gabe irudiak jasotzeko baimena ematen du, segurtasun helburuetarako bada eta hainbat baldintza jartzen ditu. Segurtasunarekin lotutako helbururako izan behar dela berresten du.

Beste esparru batean, Langileen Estatutuetako 20.3 artikulua ere honako ahala esleitzen dio enpresariari:

“Langileak laneko bere betebeharrak eta eginbeharrak betetzen dituela egiaztatzeko zaintza eta kontrolerako neurririk ustez egokienak har ditzake enpresaburuak, langilearen giza duintasunari zor zaion begirunea zainduz, bai neurriok hartzerakoan zein ezartzerakoan ere; langile urrituen kasuan, halakorik badago, bakoitzaren benetako gaitasuna hartu behar du kontuan”.

Helburu horietaz aparte (segurtasun publikoa edo pribatua, laneko kontrola), legeak ez du bestelako gaikuntzarik ematen irudiak grabatzeko ukituen adostasunik gabe.

Beraz, Xxxxx zentroaren erabiltzaileen irudiak grabatuz gero adostasunik gabe, datu-babesaren arloko araudia urratuko litzateke. Adostasuna zentroan onartua izateko eskabide-orriaren bidez lor daiteke, hura sinatzean, adostasuna egiaztatzeko moduan jasota geratuko litzatekeelako. Edozelan ere, adostasunak DBLOren 3 h) artikulua eskatzen dituen betekizunak bete behar ditu, hau da, *“interesdunaren borondate-adierazpen askea, argia, berariazkoa eta informatua”* izan behar da; eta horretarako modu bat izan daiteke laukitxo bat jartzea herritarrak sina dezan; eta herritarrak ez badu sinatzen, ez da baztertuta geratuko eta berdin sartu ahal izango da zentroan.



IV

Inprimakiak arauak betetzen dituen ala ez ikusi, eta bertan egin behar diren zuzenketak aztertu eta gero, hau da, informazio klausula eta adostasunaren eskaera gehitu ondoren, beste alderdi bi geratzen dira aztertzeke: bata da jakitea Xxxxx Sailaren menpekota izanik, zentroaren zuzendaritzak zein erantzukizun har dezakeen bere gain, eta bestea da zein diren irudiak erabiltzeko Xxxxx-(e)k bete behar dituen baldintzak.

Bi gai horiek direla eta, ez dakigunez zein den Xxxxx Sailaren eta Xxxxx-(r)en arteko harremana datu-tratamenduari dagokionez (ea biak diren fitxategi arduradunak ala bata tratamendu-eragilea den eta bestea tratamenduaren arduraduna den), ezin dugu alde zuzeneko erantzukizun erregimenik ezarri; izan ere, bi erakundeen arteko harremanak aginduko lukeelako zein erakundek hartuko lukeen erantzukizuna bere gain, edo biek hartu beharko luketen. Hala ere, nahiz eta ez jakin zein erakundek duen erantzukizuna, argi eta garbi esan dezakegu kontsulta gai diren tratamenduak datu-babesaren arloko araudia urra dezaketela eta arau-haustea larria izan daitekeela.

Goiko arrazoi horiek balio dute esateko ezin dugula ezer ziurrik esan Xxxxx-(e)k irudiak erabiltzeagatik bete beharreko baldintzei buruz. Aitzitik, berretsi egin behar dugu adin txikikoen irudiak tratatzeko eta hedatzeko, kontuan izanik helburua ez dela adin txikikoen segurtasuna, nahitaez beharko dela adin txikikoen edo horien ordezkari legalen adostasun garbia.

Esandako guztiaren ondorioz, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ondoko erabakia hartu du.

ONDORIOA

Xxxxx Zentroko jardueretan parte hartzeko eskabideak (irizpena eskatzeko kontsulta-idazkiaren Eranskin gisa atxikiak) ez du betetzen datu-babesaren arloko araudia eta irizpen honetan dago azalduta zergatik.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko ekainaren 30ean